

ATAUNGO UDALA

Euskararen egoera Ataunen
DIAGNOSIA ETA ESPARRUZ ESPARRUKAKO EKINTZA
PLANA



Ataunen, 2014ko abenduan

AURKIBIDEA

1	SARRERA	3
2	EUSKARAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	4
2.1	DATU KUANTITATIBOAK	4
2.2	ESPARRUAK: EGUNGO EGOERA, ERRONKAK ETA EKINTZAK	6
2.2.1	Familia bidezko transmisioa	6
2.2.2	Euskalduntze alfabetatzea.....	8
2.2.3	Administrazioa	9
2.2.4	Arlo sozioekonomikoa	10
2.2.5	IKTak, liburugintza, euskararen kalitatea	12
2.2.6	Sentsibilizazioa eta motibazioa	13
3	LEHENTASUNAK	14
3.1	Lehentasunezko esparruak eta ekintzak	14
3.1.1	ADMINISTRAZIOA	14
3.1.2	FAMILIA TRANSMISIOA.....	14
3.2	Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Ezartzeko prozedura eta diru laguntza lerroa.....	14
3.2.1	ESEP ezartzeko prozedura	14
3.2.2	ESEP garatzeko diru laguntzak.....	15

1 SARRERA

Dokumentu honetan jasotzen dira Ataungo udalerriko euskararen normalizazioari modu eraginkorren erantzuteko, euskara taldean egin den hausnarketaren berri eta aurrera begirako proposamenak.

Hemen jasotzen direnak bi bileretan landu ditugu:

- Esparruetako (familia transmisioa, euskalduntzea, haur eta gazteen erabilera...) egoeraren DIAGNOSIA egin dugu. Bilera honetan esparru bakoitzaren AMIA matrizea osatu genuen. Bileraren ondoren AMIA horiek herriko hainbat eragileei bidali zitzairen osa zezaten.
- Esparruz esparru eragiteko EKINTZA PLANA landu eta adostu dugu.

2 EUSKARAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

2.1 DATU KUANTITATIBOAK

- Biztanle kopurua 1.600 1.700 inguruan azken 25 urtean
- 2011n biztanleen % 9 Gipuzkoatik kanpoan du jatorria, 1986tik kopururik handiena.
- Euskara gaitasunari dagokionez:
 - Euskaldun kopuru erlatiboa jaitsi egin da. 1986an % 97koa zen eta 2011n % 86koa.
 - Euskaraz ez dakiten herritarren ehunekoa bikoiztu egin da 1986tik 2011ra, % 3tik % 6ra (46tik 98ra).
 - Ulertu bai, baina hitz egiten ez dutenen kopurua ere asko handitu da. Herritarren % 7 izatera iritsi da (120 lagun). 1986an 15 lagun ziren.
 - Adin talde guztietan jaitsi da euskaldun kopurua. 2 -14 urte bitartekoen artean % 92 da euskalduna, 15-34koen artean % 83, 35 – 64koen artean % 83 eta 65 urtetik gorakoen artean % 94.
- Lehen hizkuntza: 2001ean euskara zen 2 – 14 urte bitartekoen % 90en lehen hizkuntza, 2011n % 75ena.
- Etxeko hizkuntza: 2 eta 14 urte bitartekoen artean EUSKARA % 66ren etxeko hizkuntza da (2001ean % 90ena) , GAZTELANIA % 21ena eta biak % 11na. Beste hizkuntza % 2rena.¹
- Eskolan 228 ume daude, 160 familia.
- 10 familiek jasotzen dituzte eskolako oharrak ele bitan. Gainerakoek euskara hutsean.
- Haur-eskolako 13 familiek oharrak euskara hutsean jasotzen dituzte.
- Ataunen bertan euskalduntze ikastarorik ez dago egun. Etorri berrientzako AISA ikastaroa izan da San Martinen 2014an (8 ikasle)
- Herritik kanpo 2 herritar ari dira euskara ikasten Ordiziako AEKn.
- Herritarrek udalarekiko harremanak euskara hutsean izateko aukera badago
- Herri langileek sorkuntza zein lan jarduna euskaraz egiten dute.
- Udalaren barneko zein kanpoko paisaia euskalduna
- Udalak ez ditu Hizkuntza irizpiderik onartu.
- Kontratazioetan hizkuntza irizpideak sartzeko prozesua abian da
- Beste administrazioekiko harremanak euskaraz izaten dira
- Euskara ikasteko diru laguntzak ematen dituzte:
 - Gutxienez % 90eko asistentzia izan behar du ikasleak
 - Gehienez matrikularen % 50 itzuliko zaio.

¹ Oharra: hemen azaltzen diren datu estatistikoak (biztanle kopurua, jatorria, euskara gaitasuna, lehen hizkuntza, etxeko hizkuntza) hemendik atera ditugu: *Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen Estatistikak*. http://www.gipuzkoeuskara.net/eu/datu_soziolinguistikoak

- Udaleko langileen lan hizkuntza, gainerako administrazioekin eta herritarrekin harremanak euskaraz izaten dira.
- Paisaia linguistiko publikoa eta merkataritzakoa euskaraz dago.
- Gazteen eskolaz kanpoko jarduerak, aisialdia, kirola eta abar euskaraz izaten dira.

Laburbilduz:

EZAGUTZA

Ataungo biztanle kopurua 1.600 – 1.700 artean finkatu da azken 25 urtean. Gipuzkoatik kanpo etorri direnen kopurua % 9ra iritsi da.

Herri euskalduna da, 1986tik 2001era % 95etik gorako euskaldun kopurua azaltzen da datuetan, azken 2011ko datuetan % 86raino jaitsi da .

Herrian ez dago euskalduntze talderik, etorri berrientzako AISA taldeaz gain. Herritik kanpo, Goierrin, bi lagun baino ez daude euskara ikasten.

ERABILERA

Kale erabileraren daturik ez dugu, baina **Eustaten** arabera lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoa jaitsi da 10 urtean: **% 90etik % 75era**

Etxeko hizkuntzan euskarak lekua galdu du: 10 urtean **% 90etik % 66ra**.

Eskolako 10 familiak jasotzen dituzte oharrak ele bitan (2014-2015 ikasturtean) . Honen arabera etxeko erabileran jaitsiera eman dela esan dezakegu, gehiago hitz egiten da gaztelaniaz eta ele bietan.

2.2 ESPARRUAK: EGUNGO EGOERA, ERRONKAK ETA EKINTZAK

2.2.1 Familia bidezko transmisioa

ALDATZEKO EDO HOBETZEKO EGOERAK

2. Helduen artean gaztelaniaz asko hitz egiten da.
3. Euskara / gaztelania tartekatuz hitz egiteko joera ere badago.
4. Guraso batzuek seme-alaben gaztelania maila baxua delako kezka badute.
5. Guraso batzuek etxean seme-alabei gaztelaniaz egiten diete gaztelania maila handitzeko.
6. Etorकिनen etxeko hizkuntza.
7. Euskaraz ez dakitenek ez dute euskara ikasteko premiarik ikusten.
8. Euskaldunok ez dugu eredugarritasun handirik. Gure artean erdaraz egiten dugunean.

ERRONKA

Euskara herritarren lehen hizkuntza gisa eta hizkuntza natural gisa sendotzeko lagungarri izango diren ekimenak garatzea
 Herritarren artean euskara erabiltzearen aldeko jarrera lantzea
 Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko

EKINTZAK

- Euskararen familia bidezko transmisioa bermatzeko eta sendotzeko ekintza lagungarriak garatzea
 - Familia bidezko transmisioari buruzko informazioa zabaldu herritarren artean euskararen erabileraren garrantziaz jabetzeko.
 - Arnasguneei buruzko informazioa zabaldu herritarren artean euskararen erabileraren garrantziaz jabetzeko.
 - Mintzalagun (gurasolagun) ekimena abiatzea eta garatzea.
 - Edozein motako ekintzak antolatu gutxien dakitenak erakartzeko: menuak taldean prestatu, josteko taldea sortu
 - Gaztelania maila baxuaz dagoen kezka bideratu: hitzaldiak, eskolatik informazio gehigarria zabaltzea, herritarren esperientziak ...
- Ahozotasuna eta euskaraz adierazteko gaitasuna lantzea, bereziki haur eta gazteei zuzendutako egitasmoen bidez
 - Kultur ekintzetan euskarazko eskaintza bermatzea
 -
- Irakurzaletasuna sustatu eta indartzera bideratutako ekimenak abiaraztea
 - Irakurketa tailerrak antolatu
 - Atarian euskarazko liburuen berri eman: gaia, zailtasuna, luzera ...
 - Gazteen artean e-liburutegiari buruzko informazioa zabaltzea
- Euskarazko produktuen katalogoa eta euskarazko kultur eskaintza ahalik eta gehien jakinaraztea, webgune bitartez edo beste bide batzuetatik

- Atarian euskarazko kultur eskaintzaz loturak jartzea: produktuen katalogoa, filmak euskaraz,
- Arreta berezia jartzea haur eta gazteentzako eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen, jarduera-eskaintza egiazki zabala izan dadin eta eskaintza horren garapenean hezkuntza komunitate osoak (hezitzaileak, gurasoak, ikasleak) eta herri-administrazioek parte har dezaten
- Etorkinak euskarara hurbiltzeko egitasmo eraginkorrak sustatzea (irakaskuntzaren, aisialdiaren zein euskalduntzearen ikuspegitik)
- Motibazioaren alderdi guztiak lantzea tailerren edo mintegien bidez: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala

2.2.2 Euskalduntze alfabetatzea

ALDATZEKO EDO HOBETZEKO EGOERAK

1. Euskararen aldeko motibazioa falta da. Erdara (gaztelania, ingelesa,..) nahitaezkoa jotzen dugun bitartean, euskara ez dugu nahitaezkoztat.
2. Euskaraz ez dakitenek ez dute euskara ikasteko premiarik ikusten.
3. Euskara ikasteko ikastaroez informaziorik ez da zabaltzen.
4. Alfabetatu gabe asko dago herrian.
5. Euskara ikasteko informaziorik ez ematea baino gehiago, herri bertan aukerak ez eskaintzea.

ERRONKA

Euskara ikastearen aldeko mezua zabaltzea eta aukerak zabaltzea

Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak

EKINTZAK

- Erdaldunak euskarara erakartzeko estrategiak diseinatu eta garatzea
 - Mintzalaguna, kafea euskaraz ... antolatu eta bultzatu
 - Umeekin batera ekintzak antolatu: futbola, xakea
 - Erabilera bultzatzeko kanpaina puntualak: pegatina, pina ...
 - Herrian bertan eskolak antolatzea, mailari erreparatu gabe
 - Ikastaroak euskaraz eskaintzea: fotoshop, argazkigintza,
- Matrikulazio kanpainetako informazioa zabaltzea
 - Euskaltegien informazioa zabaldu
 - Herrian taldea osatzeko proposamena egin
- Etorkinak euskarara hurbiltzeko egitasmo eraginkorrak sustatzea (irakaskuntzaren, aisialdiaren zein euskalduntzearen ikuspegitik)
- Motibazioaren alderdi guztiak lantzea tailerren edo mintegien bidez: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala

2.2.3 Administrazioa

ALDATZEKO EDO HOBETZEKO EGOERAK

1. Udalak ez ditu hizkuntza irizpideak zehaztu
2. Udalak diruz laguntzen dituen ekitaldietan (jaiak adibidez) hizkuntzen erabileraren inguruko irizpiderik ez dago. Kuotarik.
3. Zinema gehienbat gaztelaniaz izaten da.
4. Antzerkiak gaztelaniaz ere izan dira. Ez da kuotarik aurreikusten (% bat gutxienez euskaraz, adibidez).
5. Jaietan musika talde erdaldunak ere ekartzen dira.
6. Puzgarrietako begiraleak ez dira beti euskaldunak izaten.

ERRONKA

Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea.

Udalak hizkuntza irizpideak zehaztea.

EKINTZAK

- Osasun, justizia eta gizarte zerbitzuetan euskararen erabilera lehenestea
 - Anbulatorioetako euskararen erabilera (idatziak, ahozkoa)
 - Gainerako zerbitzuen jarraipena
- Administrazioen arteko harremanetan, udal langileekin izango dituzten lan-harremanak (ahoz zein idatziz) euskaraz izango direla ziurtatzea.
 - Harremanen zerrenda eta hizkuntza osatu eta jarraipena egin.
- Udalaz gaindiko administrazioek gune euskaldunenetako herritarrei ematen dieten zerbitzua euskaraz eskaintzea
 - Korreos: ahozko eta idatzizko zerbitzua (oharrak, kartelak...)
 - Gipuzkoako Urak
- Hizkuntza paisaia, eskumen publikokoa, oro har euskaraz izateko neurriak hartzea
 - Udalaren eskumeneko hizkuntza paisaia erabat euskara dagoela bermatzea
 - Beste administrazioen eskumeneko paisaian gutxienez euskaraz egoteko eskaera ofizialak egitea
- Aisialdiko ekintzetan eta kultur jardueretan ohiko eskaintza euskarazkoa izatea bermatzea
 - Hizkuntza erabilera kuotak ezartzea: gaztelaniaz / euskaraz eskainiko diren ekintza kopurua zehaztea
- Proiektzio publikoa duten zerbitzuak kontratatzerakoan, elkarte eta enpresei diru-laguntzak ematerakoan, jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo administrazioaren instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan euskararen erabilera egokia bermatzea
 - Kontratua bera, lana burutzerakoan euskararen erabilera ...
 - Umeentzako barraketan euskararen erabilera arautzea
 - Kale saltzaileak: euskara ere erabiltzeko eskaera egitea.
- Udalak hizkuntza irizpideak onartzea

2.2.4 Arlo sozioekonomikoa

ALDATZEKO EDO HOBETZEKO EGOERAK

1. Tabernetan jartzen den telebista / musika askotan erdaraz
2. Zenbait establezimendutan oharrak eta kartelak gaztelania hutsean jartzen dira
3. Establezimendu batzuetan euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzten edo euskaraz aritzeko ohiturarik ez duten langileak daude
4. Herriko enpresek gaztelaniaz funtzionatzen dutela pentsatzen dugu (Goierriko enpresa gehienek bezala)
5. Kale saltzaile gehienek ez dute euskara erabiltzen, ez ahoz eta ezta idatzizko oharretan ere.

ERRONKA

Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea.

Herritarrengan eta merkatarari edo ostalariengan eragitea, herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko

EKINTZAK

- Hizkuntza paisaia , merkataritza eta enpresa arlokoa, oro har euskaraz izateko neurriak hartzea
 - Merkataritza kokaguneetan bezero euskaldunak euskarazko zerbitzua jaso ahal izango duela bermatzea
 - Merkataritzako langileei euskara ikasteko bideak erraztea: informazioa eman, diru laguntzak
 - Merkataritzako idatzizko oharrak, jakinarazpenak ... euskaraz jartzeko baliabideak eskaintzea: kartel ereduak, itzulpen zerbitzua
9. Motibazioaren alderdi guztiak lantzea tailerren edo mintegien bidez: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala

2.2.5 Aisia eta kirola

ALDATZEKO EDO HOBETZEKO EGOERAK

1. Zinema gehienbat gaztelaniaz izaten da.
2. Antzerkiak gaztelaniaz ere izaten dira
3. Jaietan musika talde erdaldunak ere ekartzen dira
4. Puzgarrietako begiraleak ez dira beti euskaldunak izaten.
5. Federazioetatik eskaera eta dokumentazio asko erdara hutsean etortzen da
6. Eskola kirolean kanpoko entrenatzaile batzuek gaztelaniaz aritzen dira
7. Eskola kirolean ez da hizkuntza irizpiderik ezartzen (gurasoen oihuak, entrenatzaileen aginduak, umeen artekoak ...)

ERRONKA

Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea.

EKINTZAK

- Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko
- Aisialdiko ekintzetan eta kultur jardueretan ohiko eskaintza euskarazkoa izatea bermatzea
 - Hizkuntza erabilera kuotak ezartzea: gaztelaniaz / euskaraz eskainiko direnak zehaztea
 - Zine emanaldietan berdin. Euskarazko pelikulak, euskara azpititulutakoak ...

2.2.6 IKTak, liburugintza, euskararen kalitatea

ALDATZEKO EDO HOBETZEKO EGOERAK

1. IKT, sare sozialak, Internet. Euskarazko aukera eta produktuen ezagutza txikia da.
2. Atun.eus atarian euskararen kalitatea bermatzeko aukerak
3. Herritarren, establezimenduen, elkarten ... laguntzaren beharra euskarazko testuak zuzentzeko edota sortzeko orduan.
4. teknologia berrietan gehiena beste hizkuntzetan dago.
5. teknologia berrietan euskarazko aukerak ez dira ezagutzen

ERRONKA

Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea.

EKINTZAK

- Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sarera informazio bila euskaraz ere jo dezaten
- Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sakelakoetan, tabletetan eta gainerako tresnetan euskarazko menuak, mezuak, etab., euskaraz izan daitezen
- Atun.eus atarian euskararen kalitatea bermatzeko bideak aurreikustea: laguntzak, itzulpenak ...

2.2.7 Sentsibilizazioa eta motibazioa

ALDATZEKO EDO HOBETZEKO EGOERAK

1. Euskararen aldeko motibazioa falta da. Gaztelania eta ingelesaren beharra ikusten da, euskararena ez.
2. Euskara ez dakitenek ez dute euskara ikasteko premiarik ikusten
3. Euskal egunkari, irrati, tb kontsumitzeko beharrik ez dago
4. Alfabetatzeko beharrik ez dago
5. Guraso batzuek seme-alaben gaztelania maila baxua delako kezka dute.
6. Euskararen erabilerak ez du kezkarik sortzen

EKINTZAK

- Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta eta bide telematikoak lehenetsiz. Euskaraz egiten diren ekitaldietarako abantailak eskaintzea
- Motibazioaren alderdi guztiak lantzea tailerren edo mintegien bidez: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala
- Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea
- Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko
- Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea
- Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenengan eragitea (autoeskolak, jubilatutako elkarte kultur elkarte ...), ikastaroak euskaraz ere antolatzea
- Herritarrengan eta merkataritza edo ostalariengan eragitea, herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko
- Errotulazio finkoa eta noizbehinkakoa euskaraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri
- Herriko aisialdi klub eta kirol taldeekiko lankidetzak bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko
- Euskaraz argitaratutako liburuak eskola barruan eta eskolatik kanpo ezagutarazteko komunikazio-estrategia egokiak diseinatu eta abiaraztea
- Komunikabideetan herritarren eta, bereziki, gazteen parte-hartzea sustatzea (gizarte sareen bidez, esaterako)
- Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sarera informazio bila euskaraz ere jo dezaten

3 LEHENTASUNAK

3.1 Lehentasunezko esparruak eta ekintzak

Ataungo euskararen diagnosia eta ekintza plana osatzeko erabili dugun taldean, Euskara Taldean, lehentasunezko bi esparru agertu dira:

3.1.1 ADMINISTRAZIOA

LEHENTASUNEZKO EKINTZAK:

- Udalak hizkuntza irizpideak onartzea

3.1.2 FAMILIA TRANSMISIOA

LEHENTASUNEZKO EKINTZAK:

- Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragiteko ekintzak, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko.

3.2 Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Ezartzeko prozedura eta diru laguntza lerroa.

3.2.1 ESEP ezartzeko prozedura

ESEP Euskara Sustatzeko Ekintza Plana izeneko plangintza herrian martxan jartzeko prozedura hau jarraitu behar da. HPSri, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari egin behar zaio eskaera :

1. Udalak eskaera formala egin beharko dio HPSri, ESEP plangintzari hasiera eman nahi diola adieraziz, bere baitan biltzen duen erabilera planarekin batera.
2. HPSk bilera baterako hitzordua jarriko du alkatearekin, ogasun zinegotziarekin eta plangintza aurrera eramateko ardura teknikoa hartuko duenarekin. Bilera honetan ESEPen metodologia eta prozedura azalduko dira, eta jarri beharreko baliabideak eta antolaketa argitu.
3. Bilera teknikoa: ESEP prozedura, IRATI aplikazioa, plan estrategikoak eta kudeaketa planak definitu
4. Euskararen Aholku Batzordea: herrian plangintzari buruzko iritziak eta aholkuak emateko eta jarraipena egiteko osatu den taldea.
 - Egoerari buruzko datu bilketa: datu kuantitatiboak lortuko ditugu eta balorazio kualitatiboekin osatuko ditugu Euskararen aholku Batzordean. Diagnosi txostena osatuko dugu adierazle, ahulezi eta indargunez.

- Lau urtera begirako plan estrategiko proposamena kontrastatuko da Euskararen Aholku Batzordearekin eta behin betikoa osatu.
5. Plan estrategikoa Udalbatzari aurkeztu eta onartu egingo da.
 6. Behin plan estrategikoa onartuta urteko kudeaketa plana proposatuko dugu eta udalbatzan onartu.
 7. Plan estrategikoa eta 2014ko kudeaketa plana sartu beharko dira IRATI aplikazio informatikoan.
 8. Urteko Kudeaketa planaren balorazioa urte bukaeran egingo da, adierazleen bilakaera eta balorazio kualitatiboa. Aholku Batzordearen ekarpenak jaso behin betikoa adostuko da.
 9. Balorazioa kontuan hartu eta Plan estrategikotik hurrengo urterako Kudeaketa plana osatuko dituzten esparruak, neurriak eta ekintzak aukeratuko ditugu.

OHARRAK:

- (4. puntua) Euskararen Aholku Batzordea izena aipatzen du HPSk. Datu bilketa, datu kuantitatiboak eta balorazio kualitatiboak maila batean Euskara Taldean egin dugu. Balorazio kualitatiboa gehiago osatu daiteke baina lanerako oinarritzko dokumentua hauze litzateke.
- (4. puntua) Txosten honetan ekintzak proposatu ditugu. Ekintza hauek zehaztu eta osatu beharko litzateke. Honetaz gain lau urteko plan batean kokatu, Plan Estrategikoa.

3.2.2 ESEP garatzeko diru laguntzak

Eusko Jaurlaritzako HPS:

ESEP deialdia (2015-2016 urteetarako): 2.771.000 euro

EAEko udalentsat eta udalez gaindiko organismoentzat diru laguntzak (mankomunitateak, kuadrillak). Helburua da udal entitateek Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia / Euskara Sustatzeko Ekintza Plana garatzea, ondorengo jardueren bidez:

- Aisialdiko eta kirol munduko ekintzetan euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.
- Familia bidezko euskararen transmisioa indartzea.
- Eskola-giroan baina eskola-orduz kanpoko jardueretan euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.
- Helduen artean euskararen erabilera bultzatzea, Mintzalaguna edo bere gisako egitasmoen bidez.
- Euskara etorkinei gerturatzeko saioak...
- Deialdi hau urtarrilean argitaratuko de EHAAn, eta ondoren irekiko dira eskaerak egiteko epeak.

Diru laguntza hauen kopurua ez da finkoa izaten. Banatzeko orduan udalerrri bakoitzaren euskararen arloko aurrekontua hartzen dute kontuan. Diru laguntzak eskatzeko gastua egin behar da, alegia, justifikazioa egiteko fakturak erakutsi behar dira.

Gipuzkoako Foru Aldundia

GFAk ere diruz laguntzen du udalerriek euskara sustatzeko egiten dituzten ekintzak. Ez dira esparru guztiak diruz laguntzen.

2014an Ataungo Udalak eskaera egin zuen GFAn eta 2.000 euroko diru laguntza lortu zen. Diru laguntza hauek ere faktura bidez justifikatu behar dira.